



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

**2015eko AZAROAREN 4an EGINDAKO  
EZ-OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

Olaberrian, 2015eko irailaren 24an, arratsaldeko 6:05ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira jarduneko Alkatea den, Jokin Garmendia Asurabarrena, Nerea Castaño Irazola, Elixabet Canales Segurola, Mikel Etxarri Juanes, Mainer Agirre Mugika, Aritz Arantzegi Areitio eta Iñigo Sarasola Aranzasti zinegotziak.

Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arebalo Benito Idazkari Kontuhartzaileak.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

**AZPIEGITURA ETA HIRIGINTZA**

**Olaberriko Agenda 21eko Ekintza Plana:  
Onarpena**

Joan zen batzorde informatzailean, Olaberriko Tokiko Agenda 21ren Ekintza Planaren berri eman zitzaizen udal-kideei.

Behar bezala eztabaidatu ondoren, gaia bozkatzen da honako erabaki hau hartuz:

**ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO  
CELEBRADO EL 4 DE NOVIEMBRE DE  
2015.**

En Olaberria, a 4 de noviembre de 2015, siendo las 13:40 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena, y los concejales Nerea Castaño Irazola, Elixabet Canales Segurola, Mikel Etxarri Juanes, Mainer Agirre Mugika, Aritz Arantzegi Areitio e Iñigo Sarasola Aranzasti .

Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arebalo Benito.


Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, la Corporación pasa a estudiar el primer asunto del orden del día.

**INFRAESTRUCTURA Y URBANISMO**

**Plan de Acción de la Agenda 21 del  
municipio de Olaberria: Aprobación.**

Se dio cuenta a los corporativos en la pasada comisión informativa del Plan de Acción de la Agenda Local 21 de Olaberria.

Tras debatirlo suficientemente, se procede a la votación siendo el acuerdo adoptado el siguiente:



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

**BAKARRA:** Olaberriko Agenda 21en II. Ekintza Plana onartzen da aho-batez.

BILDU taldekoa den Iñigo Sarasola zinegotziak konpromisoa hartzea eskatzen du, Ekintza Plana zehaztea eta jarraipen bat egitea.

**OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU  
TEKNIKOAK**

**2016 ekitaldiko Ordenantza Fiskalak: behin-behineko onarpena.**

Joan zen batzorde informatzailean gaia udal-kideei azaldu zitzairen.

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udaltzarak zera erabakitzen du gehiengo absolutuz, BILDU taldeko zinegotziaren aurkako botoarekin:

**LEHENA:** 2016rako Ordenantza Fiskalen aldaketa behin behineko izaeraz onartzea ondoren aipatzen diren ataletan:

1.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga: familia ugariarentzat hobari bat eratzen da.

2.- Uraren hornidurarako zerbitzua eskaintzeagatik Tasa : Erabilera industrialaren kasuan kontagailuaren kopuruaren igoera .

3.- Zaborra biltzeko zerbitzua eskaintzeagatik Tasa: Establezimendu komertzial eta industrialen kasuan beste atal

**UNICO:** Se aprueba por unanimidad el II. Plan de Acción de la Agenda Local 21 de Olaberria.

El concejal del grupo BILDU Iñigo Sarasola, pide que haya un compromiso al respecto y que se haga un seguimiento del Plan de Acción.

**HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS  
MUNICIPALES**

**Ordenanzas Fiscales 2016: aprobación inicial.**

Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda por mayoría absoluta con el voto en contra del concejal del grupo BILDU:

**PRIMERO:** Aprobar inicialmente la modificación de las Ordenanzas Fiscales para el 2016 en los siguientes apartados:

1.- Impuesto de Bienes Inmuebles: se introduce una Bonificación a las familias numerosas.

2.- Tasa por la Prestación del servicio de suministro de Agua: se incrementa el importe correspondiente al contador en el caso del uso industrial.

3.- Tasa por la Prestación del Servicio de Recogida de Basura: se crea otro tramo para el caso de los establecimientos



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

eratzen da.

4.- Kultura eta denbora libreko jarduerak burutzeagatiko tasen Ordenantza bat eratzen da, bertan udal ludoteka eta kultura sailak antolatzen dituen ikastaroei dagokien tasak txertatuz.

5.- Hileta zerbitzuak eskaintzeagatiko tasen Ordenantza arautzaile bat eratzen da.

**BIGARRENA:** Aipatu akordioak eta horretarako izapidetutako espedienteak jendaurreko informazioan jartzea 30 laneguneko epean, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Arau Foralaren 16.1 artikulua ezartzen duenaren arabera, aldizkari ofizial honetan eta Udaletxeko iragarki taulan iragarkiak ezarriz, aipatu artikulua 2. zenbakiak eskatzen duenaren arabera.

**Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasen Ordenantza arautzailea: kultura eta denbora libreko jarduerak: behin-behineko onarpena.**

Joan zen batzorde informatzailean gaia udal-kideei azaldu zitzaion.

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du gehiengo absolutuz, BILDU taldeko zinegotziaren aurkako botoarekin:

**LEHENENA:** .: Kultura eta denbora libreko jarduerari dagozkion zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasen

comerciales e industriales.

4.- Se elabora una Ordenanza reguladora de las actividades culturales y de tiempo libre, en el que se incluyen las tasas por la utilización de la ludoteca municipal y cursillos del área de cultura.

5.- Se elabora una Ordenanza reguladora de Tasas por prestación de servicios funerarios.


**SEGUNDO:** Someter a información pública el acuerdo adoptado y el expediente al efecto instruido durante un plazo de 30 días hábiles, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 16.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, mediante publicación de anuncios en este medio oficial y en el tablón de anuncios de la Casa Consistorial, según exige el número 2 del citado artículo.

**Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades: actividades culturales y de tiempo libre: aprobación inicial.**

Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda por mayoría absoluta con el voto en contra del concejal del grupo BILDU:

**PRIMERO:** Aprobar inicialmente la Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

Ordenantza arautzailea behin behineko izaerarekin onartzea.

**BIGARRENA:** Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikulua dioenaren arabera, 30 eguneko informazio publikoko epea irekitzen da, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, espedientea aztertzeko aukera emateko eta, kasua bada, egoki kontsideratzen diren alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hala ere, alegazio edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, ordenantza behin betiko onartutzat joko da, erabaki berririk hartzeko beharrik egon gabe.

**Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasen Ordenantza arautzailea: hileta zerbitzuak: behin behineko onarpena.**

Joan zen batzorde informatzailean gaia udal-kideei azaldu zitzaion.

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du gehiengo absolutuz, BILDU taldeko zinegotziaren aurkako botoarekin:

**LEHENA:** ∴ Hileta zerbitzuei dagozkion zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasen Ordenantza arautzailea behin behineko izaerarekin onartzea.

realización de actividades: actividades culturales y de tiempo libre.

**SEGUNDO:** Que de acuerdo con el artículo 49 de la Ley 7/1985, reguladora de las Bases de Régimen Local, se abre un período de información pública de 30 días, contados a partir del siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, con el objeto de que se pueda examinar el expediente en la Secretaría del Ayuntamiento y presentar, en su caso, las alegaciones y sugerencias que estime oportunas.


Que no obstante, de no producirse alegación ni sugerencia alguna a dicha ordenanza, se tendrá por aprobada definitivamente, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

**Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades: servicios funerarios: aprobación inicial.**

Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda por mayoría absoluta con el voto en contra del concejal del grupo BILDU:

**PRIMERO:** Aprobar inicialmente la Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades: servicios funerarios.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikulua dioenaren arabera, 30 eguneko informazio publikoko epea irekitzen da, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, espedientea aztertzeko aukera emateko eta, kasua bada, egoki kontsideratzen diren alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hala ere, alegazio edo iradokizunak aurkeztuko ez balitz, ordenantza behin betiko onartutzat joko da, erabaki berririk hartzeko beharrik egon gabe.

OHE taldeko zinegotzia den Aritz Arantzegi jaunak dio proposamenak kontutan hartu ez diren arren, baiezkoa ematen duela.

Alkateak erantzuten dio proposamen horiek gerora jorratuko den hilerriko ordenantzan kontutan hartuko direla.

**Kreditu aldaketa 5-2015: kreditu gehigarriak.**

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du aho-batez:

LEHENENGOA: hasierako onarpena ematea 5-2015 zenbakia duen Kreditu Aldaketa Espedienteari, kreditu gehigarri modalitatean, Udalaren 2015eko aurrekontuaren barruan.

SEGUNDO: Que de acuerdo con el artículo 49 de la Ley 7/1985, reguladora de las Bases de Régimen Local, se abre un período de información pública de 30 días, contados a partir del siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, con el objeto de que se pueda examinar el expediente en la Secretaría del Ayuntamiento y presentar, en su caso, las alegaciones y sugerencias que estime oportunas.

Que no obstante, de no producirse alegación ni sugerencia alguna a dicha ordenanza, se tendrá por aprobada definitivamente, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.


El concejal del grupo OHE Aritz Arantzegi toma la palabra diciendo que aunque no se hayan tenido en cuenta sus propuestas, su voto es favorable.

El Alcalde le responde que esas propuestas se tendrán en cuenta en la ordenanza del cementerio municipal.

**Modificación de créditos 5-2015: créditos adicionales.**

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda por unanimidad:

PRIMERO: aprobar inicialmente el Expediente de Modificación de Créditos, nº 5-2015 en la modalidad de créditos adicionales, dentro del Presupuesto del Ayuntamiento correspondiente al ejercicio de 2015.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

**BIGARRENA:** Honenbestez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuari buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 eta 34.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, aipatu espedientea jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki baten bidez.

**Sasietari ekarpen berezia: onarpena.**

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaion udal-kideei.

Behar bezala eztabaidatu ondoren, gaia bozkatzen da honako erabaki hau hartuz:

**BAKARRA:** Sasietako Mankomunitateari 18.244,10 euroko ekarpen berezia egitea onartzen da aho-batez.

BILDU taldeko zinegotzia den Iñigo Sarasola jaunak dio aldeko botoa eman duela Sasieta eta GHK-ren artean akordio batetara heldu beharko luketelako.

Alkate jaunak Sarasola jaunak egiten dituen aipamenak argitze aldera zera aipatzen du: Sasietan dauden udalerrientzat ekarpena ahalik eta xamurrena izateko, GHK-hitzartuta daukan konpromisoa bete beharko lukela.

**Ikuskaritza prozeduretatik eratorritako zehapenen barkamen eskaera.**

Joan zen Batzorde Informatzailean gaiaren berri eman zitzaion Udal-Kideei.

OLZI-2015-0002 ikuskaritza espediente zenbakidun enpresak, Udal zergen

**SEGUNDO:** En cumplimiento de lo dispuesto en el art. 34.3 y 15.1 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las entidades locales, someter el acuerdo a información pública, mediante inserción de anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**Aportación extraordinaria a Sasieta: aprobación.**

En la pasada comisión informativa se expuso el tema a los corporativos.

Tras debatirlo suficientemente, se procede a la votación siendo el acuerdo adoptado el siguiente:

**UNICO:** Se aprueba por unanimidad una aportación extraordinaria de 18.244,10 euros a la Mancomunidad de Sasieta.

El concejal del grupo BILDU Iñigo Sarasola afirma que ha votado a favor porque considera que Sasieta y GHK deberían llegar a un acuerdo.

El Alcalde, en aras de aclarar lo que ha mencionado el Sr. Sarasola, dice que para que la aportación de tengan que hacer los municipios sea lo más pequeña posible, GHK deberá cumplir lo acordado en el convenio con Sasieta.

**Propuesta de condonación de sanciones derivadas de procedimientos de inspección.**

Se expuso el tema a los Corporativos en la pasada Comisión Informativa.

La mercantil con nº de expediente de inspección OLZI-2015-0002 ha



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

ikuskaritza prozeduretatik eratorritako zehapenaren zati baten barkamen eskaera egin du.

Barkamen zein ordainketa zatiketa eskatzen diren udal zerga mota eta ekitaldiak honako hauek dira:

- Jarduera ekonomikoengatik zerga, 2012-2015 ekitaldiak.
- Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga, 2011-2014 ekitaldiak.

2013ko maiatzaren 23ko Batzarrean Olaberriko Udalak, udal zergen ikuskaritza prozeduretatik eratorritako zehapenen barkamenaren inguruan zenbait irizpide onartu zituen, portzentajeak honako hauek hain zuzen ere:

1) %10ekoa, zerga arloko arau haustea lehenengo aldiz egin deneko ikuskaritza prozeduretan.

2) %10ekoa, zergapekoaren kolaborazioa egon deneko ikuskaritza prozeduretan.

3) %50koa, likidazio guztiak (hala dagokion zergaren erregularizazioarenak, nola zerga zigorrarenak) luzatu eta gehienez ere,

presentado solicitud de condonación parcial de sanción derivada del procedimiento de inspección de tributos locales que se ha llevado a cabo por los servicios de inspección del Ayuntamiento de Olaberria.

Los tributos locales y los períodos por los cuales se solicita la condonación y fraccionamiento son los siguientes:

- Impuesto sobre actividades económicas, ejercicios 2012-2015.
- Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras, ejercicios 2011-2015.

En Sesión Plenaria de 23 de mayo de 2013, el Ayuntamiento de Olaberria aprobó una serie de criterios de condonación de sanciones derivadas de procedimientos de inspección de tributos locales, cuyos porcentajes de condonación son los siguientes:

1) 10% para los procedimientos de inspección en los que la infracción tributaria se haya cometido por primera vez.

2) 10% para aquellos procedimientos de inspección en los que ha existido colaboración del obligado tributario.

3) 50% para los procedimientos de inspección en los que se pacte un plan de de pago de liquidaciones (tanto de regularización del tributo



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

hurrengo 6 hilabeteetan ordainduko direla jasotzen duen ordainketa plan bat sinatu deneko ikuskaritza prozeduretan. Horretaz gain, barkamen portzentaje hau aplikatu ahal izateko, enpresak bere langile guztien lanpostuak mantendu behar izango ditu epe horretan.

correspondiente, como de sanción) como máximo de 6 meses desde la emisión de las liquidaciones. Además de lo anterior, para que se pueda aplicar este porcentaje de condonación, la empresa deberá mantener los puestos de trabajo de todos sus trabajadores durante dicho período.

Interesdunak, zorra barkatzeko hiru ukanbeharrak betetzen ditu, epe horretan langile guztien lanpostuak mantentzeko baldintza kontrolatzeko geldituko litzakeelarik. Honi eransten baldin badiozu, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak IV tituluan xedatzen duen lez, zigorraren zenbatekoa %40 murrizteko aukera dagoela zergapekoak erregularizazioari nahiz zigorrari adostasuna ematen dienean, zehapenaren hasierako kopurua %82-n murriztu daiteke, barkamen eta murrizketaren artean.

El interesado cumple con los tres requisitos exigidos para la condonación de la deuda, quedando pendiente de control la exigencia de la permanencia de toda la plantilla de trabajadores durante ese período. Esto unido a la reducción del 40% de la sanción para los supuestos de conformidad del obligado tributario, tanto a la regularización como a la sanción, que prevé el título IV de la Norma Foral 2/2005 de 8 de marzo General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, hace posible que la reducción total de la sanción pueda alcanzar el 82%, entre reducción y condonación.

Gaia behar bezala eztabaidatu ondoren, udal-kideek honako erabaki hau hartu dute gehiengo absolutuz, BILDU taldeko zinegotziaren aurkako botoarekin:

Tras debatir el tema suficientemente, los corporativos toman el siguiente acuerdo por mayoría absoluta, con el voto en contra del concejal del grupo BILDU:

**LEHENA:** OLZI-2015-0002 espediente zenbakidun enpresari, ikuskaritza prozeduratik eratorritako zehapenaren barkamen partziala ematea, aurreran aipaturiko zerga eta epeei dagokionez, 2013ko maiatzaren 13ko Batzarreko Akordioan zehaztutako baldintzak betetzen dituelako eta bertan aurreikusten den eran

**PRIMERO:** Condonar parcialmente a la mercantil con nº de expediente de inspección OLZI-2015-0002 la sanción derivada del procedimiento de inspección de tributos locales, correspondiente los impuestos y períodos referidos anteriormente, por considerar que cumple con los criterios establecidos por acuerdo





OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)

eta mugen arabera.

BIGARRENA: Zehapenaren %50-aren barkamena honako baldintza honetara menpekotzea: enpresak langile plantilla mantendu beharko du, gutxienez, zorraren ordainketa epean zehar.

HIRUGARRENA: Akordio hau enpresa interesdunari jakinaraztea.

plenario de 23 de mayo de 2013 y en los términos y con los límites previstos en el citado acuerdo.

SEGUNDO: Supeditar la condonación del 50% de la sanción al mantenimiento de toda la plantilla de trabajadores de la empresa, durante al menos, el período de pago de la deuda.

TERCERO: notificar el presente acuerdo a la empresa interesada.

**ALKATEA / EL ALCALDE**

**IDAZKARIA / LA SECRETARIA**